

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Maiatzak 4, 105. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Kalistroetan denborapasa

Joseba



HOTZ-BERO

KLIMATIZAZIOA

Kanpantorpea 2, Tfnoak: 79 70 98 eta 79 67 54
ARRASATE

- AIRE GIROTUA
- BEROKUNTZA
- ERAUZKETA
(Estrazioak)
- ARAZKETAK
- MANTENUA

ARRASATEKO AUTOBUS ZERBITZUAK:

IRTEERAK

Arrasate-Donostia

Astelehenetik-Larunbatera	Jaiegunetan
07.30	09.45
08.30	19.00
13.00	
14.15	
19.15	

Arrasate-Gasteiz


Astelehenetik-Larunbatera	Jaiegunetan
07.10	09.10
08.10	11.10
09.10	13.10
10.10	15.10
11.10	17.10
12.10	19.10
13.10	21.10
14.10	

Arrasate-Eibar

Astelehenetik-Larunbatera	Jaiegunetan
07.15	09.15
09.15	11.15
11.15	13.15
13.15	15.15
15.15	17.15
17.15	19.15
19.15	21.15
21.15	

Arrasate-Bergara

Astelehenetik-Larunbatera	Jaiegunetan
07.15	09.15
08.15	09.45
09.15	11.15
10.15	13.15
11.15	15.15
12.15	17.15
13.15	19.00
14.15	19.15
15.15	20.15
16.15	21.15



OHARRA: Bidaiari guztiei jakin erazi nahi diegu 1991ko maiatzaren 1etik aurrera, **DONOSTIA-BERGARA-ARRASATE-GASTEIZ** eta **ALDERANTZIZKO "Quick Service"** izena duten zerbitzuak **MURRIZTUAK** izango direla

INFORMAZIOA: 79 14 19
76 16 46

Ibilaldi turistiko eta irtenaldietako autobusak alokatzen ditugu!



ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

Publizitatea eta harpidetza:

Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanca Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalaitaikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea, Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Diruaren morroi

Lantegiak ixten ari diren pertsonaiak 68ko maiatzaren gazteak direla irakurri nion lehengoan, horren gisako baieztapenak unibertsitari-kargu publiko eta erosotik egiten ohiu den irakasle bati. Salaketa izan nahi zuen adierazpena hankamotz geratu zen, ene ustez, absolutuki eta baita erlatiboki ere, kapitalismoari gizartearen akats eta oker guztiak leporatu nahi izateak, historiak darakuskigunari bizkar ematea da eta.

Oso mundu zailan bizi gara, gizakia bera animalia zeharo kontrolgaitza bait da. Badirudi, inguratzen gaituen zibilizazioak gizadia izan beharko ez litzatekeena markatzen digula. Azterketa hotz eta zuzenak gure desbideraketa erraldoiak azalerazten dizkigu. Aurrera baino lehen, ados egongo garela iruditzen zait, basati-herriak deitu izan ditugunak ez direla halakoak uste izatean. Ipar-mendebal gizartearen basatikeria lur azalean aurkitzeko, begiak zabaldu besterik ez da egin behar. Inolako zalantzarik gabe, gizakiak historian sortu duen inbento arrakastatsu bezain erabatekoaren ardatz inguruko basatikerian garatu delako munduaren sasi ongizatea: dirua.

"Assem habeas assem valeas" -daukazunaren arabera duzu balioa- zioen Petroniok bere Satirikoan; Quevedok, berriz, "poderoso caballero es Don Dinero" idazten zuen; gure Pedro Ignazio Barrutiak aldiz, "txakurrak eurak egiten dabe danza diruagaiti"; eta horrela auskalo noraino luza genezakeen, dirua eta berarekiko atxikimendu itsuari

buruzko aipamen eta kritiken zerrenda. Diruak eta berehala aberasteko gogoak gizaartaldea bidez okertu egin dute, historiako gau beltzetik, gizadiaren mito absolutu bilakatu.

Mendeetako ekonomi lasterketa eroan, era guztietako eraso eta bortizkeria jasan behar izan dituzte ahulenek. Irabazpideetako arlo sakratuan etikak ez du jeneralean lehen lerroko sarrera eskuratzen eta eskrupulurik ezak gehienbategi alderdirik makalena astindu ditu. Horieta bi ordezkari, behargin xehea eta izadia ditugu. Hala ere, bi horien artean bada diferentzia nabaria: naturak bere kontrako basatikeriak ixilpean sufritzen dituen bitartean, langile apalak bere basa-ugazabaren mailaz du amets egiten, haren aberastasunak kilikatzen duelarik.

Diruaz gizartearen maila guztiak kutsatu ditu neurritz kanpoko bere liluraz. Erlijioso, sindikatu, militar, kirolari nahiz artista; politiko, unibertsitari, langile nahiz aszetak... den-denok harrapatu gaitu. Gorroto diogula esan dezakegu, baita beldurra ere, baina... haren bila gabiltza. Giza barne-egiturak garmatza haren atzetik.

68ko maiatzaren gazteok, Berpizkunde garaikoak edota aurtengo siberiar-mehatzari gazteen antzera, gizadiaren zati erauztezina ziren. Eta frogatua dagoen bezala, gizakiok beste animaliegandik bereizten gaituen bakarra, guk diruarekiko darakusagun zaletasuna da.

Josemari Velez de Mendizabal



enpresa
bazkariak
eta famili bilerak

gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 55

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- * Diagnostikoa - Orientazioa
- * Estimulazio goiztiarra
- * Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkun berreziera)
- * Logopedia
- * Laguntza terapia
- * Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea 10
ARRASATE TFNOA: 79 48 77

MUSAKOLA OSTATUA

**Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak**

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

Berriro abortoarekin

Nahas-mahasian sarri ibili ohi den abortoarekin gaia, puntta-punttako berri bilakatu zaigu egunkarietan eta egungo bizitzan.

Zarena zarella, gurekin batera galdera hauek egitera gonbidatzen zaitugu:

1- Zeren zain dago gobernu irakaskuntzan benetak sexu-hezkuntza bat bultzatzeko?

2- Emakumeak zergatik ezin ditu hartu gorputzarekiko erabakiak? Zergatik bere ordeztu erabakitzen dute apaiz, epaile, mediku, eliza, senar, familia eta abarrek?

3- Lege hau dela medio, zergatik uzten du gobernuak milaka emakume beren bizia arriskatuz ezkutuan abortatzea? Zein moralen izenean ontzat ematen du 40.000 pta. ordainduz sanitate pribatuan abortatzea zerbitzu bera sanitate publikoan debekatzu?

4- Zenbat epaiketa eta zenbat emakumeren hilketak behar ditu gobernu honek lege hau aldatu dezan?

Arrasateko Emakumeen Asanblada

Onartezina

Azken bi hilabeteotan sarritan Ferrerias kalean, ostiraletako zabor-bilketarekin gertatzen ari dena onartezina da. Dirudienez, zabor-biltzaileen kamioia, aparkatzen duten kotxeen erruz, Gazteluondotik Ferrerias kalera ezin izaten da pasatu. Ferreriaseko auzokideok ez gaude prest, bat, bi, hiru aldiz eta gehiagotan ostiral gauean jasotzen ez den zaborra, astelehen gauera arte bertan ikusteko; janari bila ibiltzen diren animaliak zabor-poltsak apurtzen dituztelako, ondorioz usain txarra kale guztira hedatzen delarik.

Auzokideen nahia, gertatzen dena zabor-bilketaz arduratzen direnen aurrean salatzea da, Udala zein Udal Elkarteak. Zerbitzua Udal Elkarteari badagokio, Udalak ezin du onartu gertatzen ari dena gertatzerik. Ostiral gauean bilketa lana ezin bada egin, uste dugu larunbat goizetarako premiazko zerbitzua antolatu behar dela.

Egun asko egon gara zaborra kalean zegoelarik, eta eskerrak eguraldi freskoa egin duela. Baina zer gertatuko da bero egiten hasten denean? Hori probatzeko aukera izan dugu, eta egia esan, jasanezina da.

Beraz, alkate jauna, gaian eskua sartzea eskatzen dizugu, berriro halakorik gerta ez dadin.

Ferrerias kaleko auzokideak

OPARIRIK ONENA

Orain duzu aukera kanpoan bizi diren lagun edo familiakoei ganorazko erregalao egiteko. Postaren igoera dela eta Arrasate Press jaso barik geratu badira, zeuri esker berriro has daitezke Modragoeko gorabeheren berri izaten.

Horretarako, jarraian erakusten diren diru kopuruak sartu baino ez duzu, Arrasate Pressekin Kutxan duen kontu honetan: 404636-3.

- Hego Euskal Herrira eta Estatura 1.000 pta.
- Ipar Euskal Herrira eta Europara 5.000 pta.
- Amerika eta Asiarra 12.000 pta.

Ordaintzen duzuenean, ez ahaztu zehazten noren harpidetza egiten duzun.

Ordu berdinak lana eginez, lau ala bost laneguneko astea aukeratuko zenuke?



Iñaki Otaegi
(Aseguruetan)
Lau egunekoa, geroz eta gutxiago hobeto.



Elvita Renda
(Etxekoandrea)
Lau egunekoa, noski!




Andone Garai
(Eroskiko langilea)
Lau egunekoa, gero hiru egun libre edukitzeko.



Jabier Fernandez
(Fagorreko langilea)
Bost egunekoa, hobeto banatuta dago eta.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDA-BAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA

Memesa

79 42 22

KOPIOTXOA

Fotokopiak
Planu-Erreproduzioak
Enkuadernazioak

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82
ARRASATE

ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA

BAZAR

TOKI ON

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

Monte taberna

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURÛTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Especialista)	77 12 64
(Txanda hartzeko)	77 03 46
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
--------------------------------	----------

UDALTAZINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINITZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTEERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



3

OSTIRALA

• • •

- Zinea: Amaia. "Delicias turcas" gaueko 10.30etan.
- Alai. "Despertares", 7 eta 9.30etan.
- Piraguismoko diapositiba emanaldia, Monterronen arratsaldeko 6etan.
- Antzerkia eta enkartelamendua, Udaletxeko plazan arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia:- egunez: Morales, San Andres.
- gauez: Estella (Bergara).

4

LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai. "Despertares", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Iratitik hasita, txikiteoa hankaluze eta trikitilariekin,

Kirol Agenda

FUTBOLA

• • •

- Mondra eta Tolosaren arteko partidua, Atxabalpeko futbol zelaietan, igandean arratsaldeko 4.45etan.

SASKIBALOIA

• • •

- Centraljet Euskal Air eta Xerox Getxo taldeen arteko partidua, Musakolako kiroldegian, larunbatean arratsaldeko 6etan.

PILOTA

• • •

- Deba Arroa Txapelketa, Arrasate - Bergara Musakolan, asteartean arratsaldeko 7etan.

eguerdiko 12etan.

- Bertso-bazkari omenaldia "Pako Robles eta Jon Agirre"ri, eguerdiko 2.30etan.
- Manifestaldia arratsaldeko 7etan.
- Eskolen arteko IV. Abesbatza Topaketa. Amaia antzokian, arratsaldeko 4.30etan.
- Umeentzako bideo-emanaldia, Monterronen arratsaldeko 4etan.
- Rock jaialdia. "Zakarrak, EH Sukarra, eta Su ta Gar" taldeekin, Musakolako kiroldegian gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia:- egunez: Azkoaga, Ferrerías.
- gauez: Mozos (Bergara).

5

IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai. "Despertares", 5,

7.30 eta 10.30etan.

- Goardiako farmazia:- egunez: Español, Iturriotz.
- gauez: Mozos (Bergara).

6

ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai. "Despertares", 7 eta 9.30etan.
- Goardiako farmazia:- egunez: Corcuera, Musakola.
- gauez: Camacho (Bergara).

7

ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai. "Despertares", 7 eta 9.30etan.
- Goardiako farmazia:- egunez: Irizar, Erguin.
- gauez: Puy (Bergara).

8

ASTEAZKENA

• • •

- Goardiako farmazia:- egunez: Amezua, Santamaina.
- gauez: Guallar (Bergara).

9

OSTEGUNA


• • •

- EPPko jaia. Rock kontzertua, "EH Sukarra, eta Hezur Beltzak" taldeekin, Iturrieko saskibaloi kantxan.
- Goardiako farmazia:- egunez: Aurora Ruiz, Maala.
- gauez: Estella (Bergara).

Liburuak

• Bapatean 90

Euskal Herriko Bertsolarien Elkartek kaleratu berri du, Elkarrekin batera 90. urtean plazako bertso saioetan entzundako bertso onenen bil-



duma. Zaldubik eta Iñaki Larrañagak bertso saioetan eginko grabazioetatik burutu dute bilketa lana, eta bertsolariek erabiliko doinuaren izendapena Juanito Dorronsorok egin du. Bakarkako saioak, ofizioak, gai ezberdinei botatakoak... biltzen dira 335 orrialdetan zehar. Han eta hemen sakabatatuta, bertsolarien argazkiak ageri dira.

Omenaldia

• Hamar urte gartzelan

Pako Robles eta Jon Agirrek Estatuko espetxeetan hamar urte daramatzatela eta, Arrasateko Amnistiaren aldeko Batzordeak jai-giroko omenaldi ekintzak antolatu ditu. Gaur bertan arratsaldeko 7etan herriko plazan antzerkia ikusi eta enkartelamenduan parte hartzeko aukera izango da.

Ekintza gehienak bihar izango dira: eguerdiko hama-bietan Iratititxikiteoari hasiera emango zaio, trikitixa eta hankaluzeak lagundutakoa izango delarik. 2.30etan bertso



KONTZERTUA

Albina Madinabeitiaren omenez

Bihar, arratsaldeko Betatik aurrera Arrasate Musikal-eko orkestra sinfonikoak kontzertua eskainiko du San Juan Bautistaren parrokian. Kontzertua Juan Arzamendik zuzenduko du eta lehen bibolina, Albina Madinabeitia izango da.

Kontzertu honetan, Bach, Kreisler-Pugnani, Mozart eta Joseph Hayd-en lanak entzun ahal izango dira.

Kontzertuak, Albina Madinabeitiaren bibolina entzuteko aukera eskaintzeaz gain, hamaika bibolin-jole berriren lana ikusteko aukera emango du, orkestra sinfonikoarekin joko duten lehen aldia izango bait da.

Horretaz aparte, ekainaren 9an, Udala eta Arrasate Musikalen artean Albina Madinabeitiari omenaldia eskaintzeko asmoa dago. Biharko kontzertua, beraz, omenaldiaren atarikoia izan daiteke, behintzat ala izan dadin nahi dute.

bazkaria burutuko da, eta arratsaldeko 7etan manifestaldia.

Antolatutako ekintzei bukaera emateko, gaueko 10.30etatik aurrera Musakolako kiroldegian *Zakarrak*, *EH Sukarra*, eta *Su ta Gar* taldeek kontzertua eskainiko dute.

Hitzaldiak

• Irakaskuntza Ertainaren Erreforma

Eskola Politeknikoak antolaturik, maiatzaren 6an euskaraz eta 7an erderaz Irakaskuntza Ertainetako Erreformaren

bigarren zikloari buruzko hitzaldiak burutuko dira, Eskola Politeknikoko Areto Nagusian: Goi Batxilergoa, Lanbide Heziketako 2. maila, 2. eta 3. mailako Lanbide Moduluak. Hitzaldiak arratsaldeko 6.30etan izango dira.

Herri Urrats 91

• Autobusak AEDk antolatuta

Herri Urratsen edizioa Senperen burutuko da, hilaren 12an, *"Euskara jalgi hadi plazara"* lemapean. Hori dela eta

AEDk, egun berbererako eta bezperarako ere, autobus zerbitzua jarri du.

Herri Urratsen bezperan Saran jaialdia burutuko da, Niko Etxart, Tapia eta Leturia, Zarata... eta beste musikari askorekin. Jaialdira joan nahi duenak 4.15etan Garibain autobusa izango du, aurrez AED edo Hire liburudendan 900 pezeta ordaindu eta gero izena eman badu. Egunean bertan Senperera abiatuko den autobusa ere Garibaitik aterako da, goizeko 8etan. Autobusetarako izenemate epea, hilaren 10ean bukatzen da.

Mendia

• Herri Urratsera

Senperen Herri Urratsak direnez, Besaidek irteera antolatu du astebururako. Irteera, larunbatean izango da goizeko 7etan, Amaiur-Gorramendi-lrubelaskoa-Bidarrai ibilbidea egiteko asmoa dagoelarik. Donibane Garazin lo egin eta gero, Herri Urratsera. Izena emateko azken eguna, maiatzaren 8an izango da, Besaide elkartean. Informazio gehiago nahi izanez gero, bertara joatea besterik ez dago.

Kontzertua

• Txibiston, Rage

Alemaniko Heavy Metal talde honen kontzertua burutuko da Bergarako Txibisto dantzalekuan, larunbatean gaueko 11etatik aurrera.



“.....
UCEM Gorporazioaren Juntak, iaz bezala, istilu txiki bat izan zuen ekintzari euskarazko hitz batzuekin hasiera eman zitzaionean, egoitza soziala Donostian izatean dagokion bezala (Jesus Lobo lehendakariak berak azaldu zuenez). Guzti horrek, bertaratutako batzuen protesta eragin zuen, eta euskarazko azalpena bukatu arte kanpora irtetea. (...)

“Unión Cerrajera edo Metal Transformatuen, Arrasateko aintzinako negozioen etorkizunari buruzko galderari erantzuteak, oso zuzena izan zen Jesús Lobo: produktuak konpetitibo ez badira edo interesatzen ez badira, itxi egin behar da edo produktu aldaketa bilatu. Etorkizuna gas naturalean egonik butano botilak erabiltzea da adibidea”.

(A.U. kazetariak, Egin egunkarian)

“.....
Lehendabiziko bi urteetan ez genuen lortu alkatea udal lanetara erabat jarri ahal izatea. Egun erdiz lanean ari izaten nintzen, eta gainontzeko orduak Udalari eskaintzen nizkion. Baina oso neketsua da horrela ibiltzea. (...) Zailtasuna ez da Udala gestio lanetatik heldu. Komeriak arlo horretatik baino gehiago, ekarri edo etorri diren arazo politikoetatik sortu dira. Zentzu horretan, HBk beste guztiak kontra izan ditu. Alderdi politikoek hitzarmenak izan du eragina udalaren funtzionamenduan, baina bereziki gai politikoetan. Hala eta guztiz ere, PSOEek ez du lortu hori udaleko dinamikara erakartzea”.

(Xabier Zubizarreta, Arrasateko Alkateak Argia Astekarian)

Zein izango litzateke Errolda egiten ibili zairenen balorazioa?


Zonaldeko sei arduraduni eta 17 etxez-etxezko zentsu-agenteri, martxoaren 1etik apirilaren 30era, zentsua egiteko enkargua eman ziguten. Lana behar bezala betetzeko ahaleginak egin ditugun arren, ezinezkoa izan zaigu emandako epean bukatzea, arazoak izan ditugulako.

Zentsua hamar urtetan behin berritzen da, padroia berriz bost urtetan behin. Duela bost urte, bi hilabete izan zituzten aurten EINK hilabetean egitea eskatzen zuena egiteko.

Jendearekin ere ez dugu behar bezalako harreman onik izan, batzuk aterik zabaltzen ez zutelako eta zabaltzen zuten beste batzuk modu txarrean hartzen gintuztelako. Alde horretatik buelta asko egin behar izan ditugu, denbora asko alferrik galduz. Dena dela, ulergarria da etxeetan jenderik ez aurkitu izana, bakoitzak bere lana etxetik kanpo egin beharra edukitzen du eta. Atzerapenaren beste arrazoi garrantzitsua, tartean Aste Santua egon izana ere bada.

Bukatzeko, propaganda martxoaren 1era arte ez iristea eta galdeketa koadernoak berandu iristea ere kontuan hartzekoak direla iruditzen zait.

Alberto Arregi,
Zentsu agenteen burua.



Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE

hona hemen...

Jose Mari Loiti (EAJ)

❖ EMK-LKI partiduaren zerrendaren aurkezpenean argi esan zuten, ez zutela HBren tzako boturik eskatuko maiatzaren 26an. Bereiztu egin ziren HBtik: "guk ez genukeen aurrekontu kontsentsuaturik egingo ezta Udal honek egin dituen subkontratazioak (Iturbide egoitzekoa kasu) ere", esan zuten kandidaturaren aurkezpenean.

❖ Pedro Mendietak ez du txandapasarik egingo hauteskunde ostean. Hori azpimarratu nahi izan zuen Apotzagan Aretxabaletako EAko zerrendaburuak, besterik esaten duten zurrumurruak gezurtatu nahian edo.

❖ Jose Antonio Altuna Txatillok ere behin eta berriro esan du hautatua irtenez gero -boskarren doa EAren zerrendan, ez duela txandapasarik egingo eta Udaletxean lan egiteko asmo sendoa duela. Lapiko guztietako burduntzalia izan gura ez delako ez omen du zerrendan gorago joaterik nahi izan. Igor Altuna, bestalde, Txatilloren semea, 15. lekuan agertu da aitarekin zerrenda berean.



LEIRE ZUBIKARAI 91

Ezkondua, seme baten aita, 54 urte. Maisu industrialia, enpresa zuzendaritzan lan egiten du. Zaletasun larregi lantzeko denborarik gabea, normalean basora joatea gustatzen zaio, kirolzalea da.

Gauza asko omen ditu oraindik egiteko, eta Japonian bezala esperientziak baliobadu, beste hogeitun urte ditu lanerako.

Emandako hitza jatea ezin du onartu pertsonengan, eta noblezasuna, laguntzeko gaitasuna ditu estimatu.

Errealista, idealista, familiazalea, normalean umore eta pazientziaduna. Gizarte bera aldatu beharrean pertsonak aldatu beharko liratekeela dio.

Liburua? Herriko arazoak ezagutzeko materiala irakurtzen ari da orain, baina ez du asko irakurri ohi. Arrasateko herriari "herri izatea" eskatuko lieke, eta arrasatearrei "ideiak argi jarri eta denok batera egin beharrekoa egitea" eskatuko lieke.

Berba bitan Arrasate? "Kooperatibak direla eta industrialki ezaguna, zoritxarrez herri gatazkatsua kanpora begira, eta zikina".

GOROSTI
Jatetxea

Arimazuri plaza Tfnoa: 77 06 07 ARRASATE

JOSTEKO
OIHALAK

Errekabarren 20,
Tfnoa: 79 80 90 ARETXABALETA

Eslu
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate

□ LKS bere kasa

Lan Kide Aurrezkiaren altzoa utzi eta independente bihurtu da LKS. Hori dela eta telefono zenbakiak ere aldatu egin ditu, eta aurrerantzean honako honetan aurkitu ahal izango dituzu: 77 03 35. Telefaxaren zenbakia, berriz, honako hau da: 77 10 12.

□ Helduen Hezkuntza

Arrasateko Helduen Hezkuntzako Zentruak hainbat ikastaro antolatu ditu maiatzaren 6tik 17ra bitarterako. Ingelesa, mekanografia, argazkigintza eta zine foruma egingo dira goizeko 10etatik 12ak bitartean. Ingelesa izan ezik, gainerako guztiak bi astetan zehar ematekoak dira eta hasiera mailakoak.

Arratsaldez berriz, euskara ikastaroa emango da, oinarriko mailetakoa, 4etatik 6ak bitartean, eta ilunkaratan lana bilatzeko teknikak, brikolagea, antzerkia eta euskal kultura landuko dira, guztiak ere bi astetan zehar. Izena emateko.

□ San Andreskoen oharra

San Andres Auzoko batzarrak, bertako jaietan goizaldeko orduetan etxaleroak botatzearekin inolako zerikusirik izan ez dutela eta, puntu hori argituaz ohar bat kaleratu du. Era berean, auzo horretako jaietan barrakak Leintzibar kalean jartzea euren erabakia ez dela izan eman dute aditzera.

□ San Isidro Jaiak

Musakola auzoan hasiak dira jaietarako giroa berotzen. Maiatzeko bigarren asteburuan izango dira, 11tik hasi eta 15era arte iraungo dutelarik.

□ Ikastolako ikasle ohiak

1979-80 ikasturtean ikastolako 8. maila egin zutenek lagunarteko afaria egin behar dute maiatzaren 25ean. Izena emateko dei Aitorri 79 64 79 edo Reginari 79 98 94.

Txandaka

HAMAR URTE KARTZELAN

Aurtengo maiatzaren lauean Paco Robles eta Jon Agirrek; 10 urte beteko dituzte Espainiako espetxeetan.

Gogoetak orain dela hamalau urte "77ko Amnistia" emandako garaietara garamatza. Sasi Amnistia izan zen; ehundaka eta ehundaka aber-tzale borrokarantz eramatzen zituen arrazoiak bizirik bait dirau, E.H.ri herri bezala dagozkion eskubideak, hain zuzen.

Egoera hau hamalau urtez luzatu da, Euskal Preso Politikoaren izaera eta espetxeetako egoera areagotuak izan direlarik, "Truke Txanpona" gisara erabiliak bait dira. Horrela, errepresio planifikatu baten metodoak jasan behar izaten dituzte, presoaren borroka eta kidetasun izakerak suntsitu nahian. 80ko hamarkadan segurtasun neurri handiko espetxeak ezagutu zituzten: bost preso politiko deuseztuta.

Urteetan zehar egoera latzen menpe egon arren, batasuna eta tinkotasuna erkutsi dute beraien jokabideetan, Espainiako gobernuaren politika errepresiboa pikutara bidaliaz.

Azkenengo urteetan sakabakinetak, bersailkapenak, "tortura



Karmele Martinez
(*)

txuria" eta giza eskubideen ebazpena izan dira nagusi, espetxeetan GAL sortzearen aldeko saiakerak ere eman direlarik. guzti honek ez du presoaren buru makurtzea lortu, hauek argitaratutako azkenengo komunikatuak argi uzten duen bezala.

Ezinezkoa zaigu aipatu gabe lagatzea Euskal Preso Politikoek jasotzen dituzten eraso hauek PNV, EA eta EE bezalako "alderdi demokratikoen" onarpen eta laguntza jarrerak gobernu espainolari babes ematen diola isilpeneko laguntza eskainiaz. Azkenik, multzo berean komunikabideak ere sartuko lirake boterearen esanekin bat egiten bait dute, in-tokazioaren bidez gezurra egia bihurtuz eritzi publikoa nahastuaz, presoenganako sentsibilizazio mailak ahuldu nahian.

Pako, Jon eta hauek bezala Preso Politikoak zareten guztientzak legezkoa denez, ozenki aldarrikatzen dugu:

- Euskal presoak Euskadira!
- Giza eskubideen alde, taula errebindiaktiboaren onarpena!
- Amnistia osoa!

(*) *Gestorako partaidea.*


KiDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

LILURA -k
zeure moda
diseinatu eta sortzen
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Obrak argazkian ageri dena baino aurreratuago daude

Iturriperako eskultura lehiaketa

Maiatzaren 15erako proiektuak aurkeztu behar

Iturriperako Kiroldegian jartzeko eskultura egiteko lehiaketa antolatu du Arrasateko Udalak. Lana burutzen duenak 400.000 ptako saria jasoko du. Proiektua burutu ahal izateko, inguru horretako planuak jarriko ditu Udalak parte hartu nahi dutenen eskura. Proposamenak aurkezteko epea maiatzaren 15ean bukatuko da. Eskulturan ezinbesteko baldintza izango da kirolaren udal erakundeari erreferentzia egitea, parte hartzeko orduan teknika eta materialen aldetik askatasun osoa izango den arren.

Lanak epaitzeko honako hauek osatuko dute epaimahaia: Udalbatzaren lehendakariak, kultura batzordeburuak, hirigintza eta lanen batzordeko ordezkariak, Iturriperako lanen proiektua zuzendu duen teknikaria eta Artelekuko kideren bat. Lan saritua aukeratzeko, maiatzaren 17an bilduko da tribu-

nala. Ondoren, irabazleak ekainaren 24era arteko epea, San Juan egunera artekoa izango du eskultura egiteko.

Iturriperako Kiroldegia, bere aldetik, uztailerako bukatuta egon behar bazuen ere lanen aurrerapena dela eta herriko zaindariaren jaietarako bukatuta egotea espero da. Lan guztiaren aurrekontu izendapena 248.504.984 pta.koa izan zela gogoratu behar da, aurtengo aurrekontuetan dagoelarik azken partida, 92 milioikoa. Kopuru horrekin, hala ere, ez da ordainduko ekipamendua eta inguruak txukuntzeko egin beharreko lanen kostua, beraz, beste 13,5 milioiko kreditu berezia ere izendatu du Udalak horretarako.

Iturriperako kiroldegiaren barruan honako instalaziook egongo dira: kan-txa handia, mailadia eta aldagelak; atletismoko pista, tenis eta futbitoko zelai bina izango dira alboan.

Usteak uste

Partidu Popularrak Donostiako bulegoetan antolatu du Arrasateko Udaletxean sartzeko estrategia. Botuak bai, baina jenderik ez hautagai-zerrenda osatzeko. Horixe zen gairiditu beharreko oztupoa. Soluzioa: Donostia inguruko jendez -zenbait militante eta horien emazteak-osatu zerrenda.

PPk helburu bikoitza du operazio honekin. Beste hauteskundeetan lortutako botuez baliatuz zinegotzi bat ateratzea batetik, eta bigarrenik, datorren legealdian zehar partidua eratzea. Bigarren asmoa lortzeko, nahitaezkoa dute popularrek lehenengo ere erdiestea, zinegotziaren beraren lana izango bait litzateke Arrasaten partidua egituratzea.

Gauza bera egin zuten Tolosan amaitzeaz dagoen legealdi honen hasieran. Orduan PPk ez zuen egiturarik Tolosan, botuak bai ordea. Kandidatura aurkeztu eta zinegotzi bat atera: Jabier Argomaniz, Mondragoera etortzeko asmotan dagoen bera, hain zuzen. Arrasatera bidean jarri denerako herriko junta antolatuta utzi du Tolosan partidu-gizon honek.

Ikusteko dago aukera berri honek nori kentzen dizkion botu gehiago, orain arte etorkin espainoltzaleen botua jaso duten sozialistek ala zentru-eskuinekoek. Mondragoetarrik ez egotea zerrendan, ez die gehiegi lagunduko, hala ere.

JOXE ARANZABAL

LEZARAN


ENMARKAZIOAK • LAMINAK • MARGOAK

Biteri Etorbidea 11, ARRASATE



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Urriburu 24,
Tfnoa: 79 70 39
ARRASATE



Kooperatiba taldean makina bat bilera nagusi iragartzen dira

Fagorren 90eko gestioari baietza

Minidomestiko eta Altzariekin bategitea ere onartu

Jazko gestioa onartu egin zen, asanbladaren %52aren baiezkotuz azkenean Fagorreko Elektrotresnak saileko bileran, kontseilu sozialak lehen aldiz ezetza eman arren. Horrez gain, 91rako gestio plana onartu zen, 24.553 milioko salmentekin, eta Fagor Minidomestikoak (lehen Radar) eta Altzariekin (Lenniz lehen) bategiteari baietza eman. Bi lantegiotan ere baietza jaso du proposamenak.

Kontseilu Errektorarako partaide berrien aukeraketa eta izendapenean, honako hauek sartu dira: Juan Luis Isasmendi Lehendakari orde eta Jose

Luis Foronda, Jabier Gantxegi, Jose Antonio Gonzalez eta Juan Bautista Aranzabal bokal. Kontu-hartzailertzan Jabier Ansuategi, Karmele Urkizu eta Juan Zeziaga.

Kontseilu sozialaren proposamenaren aurka asanbladak gestio planari baietza eman izana, merkatuko baldintza bereziengatik uler daiteke, eta era berean Thompson etxearekin izenpetutako akordioak irekitzen dituen espektatiben eraginez. Akordio horren bidez, produktu eta teknologia aldaketak eta erosketak elkarrekin egingo dituzte firma biek.

Ezker Batua

Ezker Batuak ere joan den ostiralean egin zuen maiatzeko hauteskuntetarako atera duen zerrendaren aurkezpena. Monterron Kultur Etxeako Aretoan. Joseba Ugalde zerrendaburuaz gain, aurkezpenean Gipuzkoako ordezkari batek ere hitz egin zuen.




JAIOTZAK

Olabarria Lasa, *Xabier*. Apirilaren 17an.
Barquero de la Cruz, *Aitor*. 20an
Agirre Crespo, *Ohiane*. 21ean.
Azurmendi Garcia, *Beatriz*. 22an.
Altuna Garitano, *Arane*. 22an.
Mellado Urzelai, *Sara*. 23an.
Murillo Mercino, *Iker*. 23an.
Marquez Bizarro, *Ivan*. 23an.
Lete Lezeta, *Maialen*. 23an.
Zubizarreta Pagaldai, *Ibai*. 24ean.
Blazquez Garcia, *Hector*. 24ean.
Soba Maiztegi, *Ezazia*. 26an.

SEGURTASUN-INJINERUTZA




Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea 35, Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ



Kontzezlifio 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

beatriz
oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



Kanpoko igerilekuan hurrengo neguan hasiko dira lanak

Igerilekuan konponketak udan

Jatetxearen lekuan gimnasioa egingo da

Musakolako Kiroldagiko igerilekuan berritze lanak egingo dira, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak jarritako gutxiengo osasun baldintzak betetzen ez dituela eta. Kanpoko zein barruko igerilekuei depuradora berriak jarriko dizkiete, eta ura bideratzeko kanaloiak ere aldatu egingo dira, bi jarriaz, piztina ertzetan kanpoko ur zikina bideratzeko bata, eta barruko ura aldatzeko bestea.

Klimatizazioari dagokionez ere, igerilekuan aldaketak egiteko asmoa dago, uren eta kanpoko tenperatura eta

ingurukoa girotzeko, eta proiektua *Gi-roa* enpresari adjudikatzeko proposamena egin da. Kiroldegiaren goiko solairuan jatetxea zegoen lekuan, bestalde, gimnasioa egokituko da, gimnasia erritmikoko taldeak orain arte kantxa baino ez bait zuen entrenamenduetarako.

Aurrekontuari dagokionez, konponketak 140 milioi kostako dira, eta aurtengo aurrekontuetan 52 daude presupuestatuta. Barruko igerilekuan udan hasiko dira lanak, eta kanpokoan berriz, hurrengo neguan.

Lourdesera

Herriko gaisoekin Lourdesera peregrinazioan joateko maiatzaren 17, 18, 19 eta 20a hartu ditu Elizbarrutiak. Izenematea San Juan Bataiarzailearen parrokiaren egin daiteke, eta baita Abade-txean ere, ostiral arratsaldetan.

Larreako etxeak

Larreako 110 etxebizitzetara sartu ahal izateko, baldintza berriak ezarri zaizkie hautagaiei, eskatzaileen kopurua eta ezaugarriak mugatu nahian. Izena eman dutenek Arrasaten enpadronatuta egon beharko dute nahitaez, beste etxebizitzarik ezin izango dute eduki, eta bikote ezkongabeek elkarrekin bizi direla egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute. Hasieran zozketa asteburu honetan egingo zela esan bazen ere, azkenean ez da hala izango, eta Udalak epetzat maiatzaren hamarra jarri badu ere, 17an egingo da zozketa seguruenik.

Ahizke-Cimen bekak

Arrasateko Hizkuntz Eskolak bere ikasleentzako bekak ireki ditu, honako baldintzok bete behar direlarik: Eskolan emaitza onak eduki izana, familiaren egoera ekonomikoa erakutsiko duen agiria aurkeztea, 14etik 30 urte bitartekoa izatea. Eskabide orriak idazkaritzan utziko dira ondo beteta, maiatzaren 25a baino lehen, eta epez kanpo iritsitakoak ez dira onartuko. Kontseilu Errektoreak ekainean emango ditu bekak.

FERRERIAS 21, Tfnoa: 79 70 06 • ARRASATE •

KILIKOLO

LOREA

Oinetakoak
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32

GASTEIZ

ARAMAIO

okindegia

Maisu Guridi 3,
Tfnoa: 79 36 46

• Zotz-Motzek lau sari banatuko ditu astero, orri honetan agertuko diren galderei ondo erantzuten dietenen artean. Moztu, bada, txartelak eta erantzunak Arrasate Pressera bidali.


• Uztailaren 16an, Zotz-Motzen sari handiak zozkatuko dira: Renault Clio bat eta bi pertsonarentzako bidaia Kanariar Irlletara. Zozketa handi honetan parte hartzeko txartelak Zotz-Motzen babesleek banatuko dituzte euren bezeroen artean, erosketekin batera.




• ANSCO argazki makina bat.

IRABAZLEAK

Argazki makina:
JUANA BERRIO-OTXOA
 Telefonoa:
SAIOA ALBERDI
 Erlojua:
AITOR ITURRIAGA
 Afaria:
AGURTZANE LARRAÑAGA



• HANDY telefono bat.



• CASIO erloju bat.

Zotz




Iturriotz kalea 8, Tfnoa: 77 04 01
 ARRASATE

Trikiti

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20
 ARRASATE



Maalako Errabala 5, Tfnoa: 79 19 2
 ARRASATE

Motz

EHIAKETA

GALDERA

Zein
kaletan
aurkitu
ziren
harresiaren
aztarnak?

Izena:

Abizena:

Telefona:

• Bidali erantzuna eta zure datuak
Arrasate Pressera: Azoka Kalea 1.



• 2 lagunentzako AFARIA.



• KANARIAR IRLETARA
2 lagunentzako bidaia
astebeterako.



• Renault CLIO auto bat.
(F.F)



KATAIDE

9 2 Kataide poligonoa, Tfnoa: 79 60 10
ARRASATE




Maixu Arano 2, Tfnoa: 79 32 22
ARRASATE



MECA
tailerrak

Araba Etorb. z/g, Tfnoa: 79 50 12 / 79 52 1 2
ARRASATE



Arrasateko kaleak garbitzeko **Cespa** egundoko makineria pila erosi du. Denok ikusiko zenuten orainez gero erratzarena egiten duen makinatxo, ezkerreko argazkian ageri dena. Kalean diotenez, goizean goiz lanean hasten denean zarata dexentea ateratzen du. Tresna horrezaz gain, ura presioz botatzeko kamioia, estolderia garbitzekoa, etab. ekarri dituzte. Guztira 47.000.000 pta. kostako dira. Langileak ere gustora jarri ziren argazkirako.




◀ **San Andresen** aldatu egin dute aurten barrakak jartzeko lekua. Orain arte **Maiatzaren 1a** plaza erabiltzen zen hartarako, baina enparantza horretan lurrak behera egin duela eta Leintzibar kalea erabili behar izan da. Inoiz baino gehiago etorri direla ematen badu ere, lekuaren estuak ematen du zentzazio hori. Kexak ere inoiz baino gehiago...

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Zerkaosteta kalea 1 eta 2, Tfnoak: 79 27 27 / 79 13 55 ARRASATE




Izen
PROPIOAK

● **Gaizka Aranegi**, 15, arrasatearra garaile atera zen joan den larunbatean, hilak 27an 17 urtetik beherakoentzat Bilbon egindako Judoko 12 orduetan. Gipuzkoako selekzioko partaide dugu Gaizka, eta bere taldea hirugarren geratu zen. 25ean Espainiako Txapelketan hartuko du parte.

● **Rufina Olasagasti**, 46, Arrasaten bizi den elduaien-darra, izango da aurrerantzean Bergarako Udaleko Kultur Gestorea. Rufinak Soziologia ikasi zuen Lovainan, Administrari gisa lanean jardun ondoren. ETEOn eta Donostiako Nazaretan irakasle izan zen gero, eta orain arte Auzo-Laguneko Formazio eta Organizazio teknikari izan da.

● **Albina Madina-beitia**, 82, Arrasateko emakumeak bere bizi guztian musikan eta bibolina jotzen egin duen lanagatik Arrasateko Udalaren eta Arrasate Musikal-en omenaldia jasoko du ekainaren 9an. Norbaitek omenaldirik merezi badu, dudarik gabe hori Albina da.

▲ **Espainiako itzulia** hasia dagoenez, jende ugari bilduko da egunero herriko tabernetan telebistaz karreraren akabera ikustera. Oraindik itzulia hasi berria da eta ez da arraroa jende gehiegirik ez egotea. Dena dela, etapak aurrera doazen neurrian giroa berotzen joango da, eta **Monte** bezalako tabernetan, pantaila handitik makina bat animo jasoko dituzte euskaldunek.



◀ **Zotz-Motz**
Lehiaketaren irabazleek **Trikiti** dendan jaso zuten saria. **Juanan Beitia** eta **Josune Elkoro** etorri ziren, eta baita bigarren horren anaia ere, baina **Itziar Ruiz de Azua** eta **Ander Agirreurretak** ez zuten etortzerik izan.

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak
Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

ITSASKI
arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak
Urbe Auzoa
Arrasate. 79 95 94

BIONAS
Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

BONBOIAK
Alai
FRUITU LEHORRAK
Otalora 2, ARRASATE

Kalistroak, gazteen neurrira

Musika eta solasaren inguruan biltzen da gazte arrasatear ugari egunero kalistroetara. Orain bi aste euretako batzuk barruko lokala hartu zuten.

San Frantziskoko kalistroa beti izan da arrasatearrentzat leku maitagarria. Urte askotan zehar Arrasateko gazteek atseginez bisitatu izan dituzte txokook. Egunduz guztian zehar, baina arratsaldetan batez ere, gazte ugari biltzen da arkupetara, eta orain baita barruko lokal batera ere: okupatu egin dute.

Kalistroetako harrigainak gazte ugariren topaleku dira: eskolatik piper egingakoan, ordu libreetan, arratsaldea pasatzera, neska-mutil asko eta asko biltzen ditu kalistroak. Kartajokoa, musika, tabakoa eta muxuak dira talde eta bikoteen entretenimendua. "Denetarik eginez, denbora pasa etortzen gara. Hona datorren jendeak ez du beste irtenbiderik denbora librea betetzeko, Arrasaten ez dago beste modurik. Gazte-
txea behar dugu, lokal bat hartuko genuke. Leku aproposa beharko luke izan, kontzertu, antzerki eta ant-

zeko ekintzak egiteko, batez ere musikalak", dio Asierrrek. Adina? Adinik ez luke mugatuko, gazte sentitzen den edozeinentzat beharko luke izan. Apaizendako berezko gorrotoa dutela esaten du, "elizaren kontrako enfrontamendu zuzena egotea polita litzateke, hona etortzen den jende guztia ateoada eta, postura kritikoa

duena elizarenganako".

Badira beste batzuk barruko lokaletara sartzen ez direnak, eta aspalditik etortzen dira San Frantziskora, hamalau-hamabost urteko neska-mutilok. "Barrukoa ondo montatuta badago, ondo, baina gu ez gara sartzen. Arrasaien beste lekuerik ez dagoelako etortzen gara hona, eta gainera he-

men ez dago gurasorik". Gurasoek ba omen dakite hona etortzen direla, eta ez diete ezer esaten. Gazte talde batek fraileen artean harreman handiena Rufinorekin dutela esaten digu, askotan egoten dela frantziskotarra eurekin berriketan: "hemen ondo gaudela esaten du, eta barruko horri buruz, leku bat jarri eta arduradun egingo litzatekeela komentatzen du, baina Udaletxera joan beharko dela. Lekua zaintzeko eskatzen digu".

Pintadak eta abar

Batzuen eritziz txikizioak egin dira kalistroetan, hain eraikin zaharrari hormak pintatu eta harriak gastatu dizkiote eta. Beste batzuen ustez, hala ere, "Ez dago destrozorik, nik uste dut halako pintada batzuk egitea nahiko giro underground-a dela". "Hondatuta? Bai, baina egon daiteke bertan. Lehengo moduan egon behar lukete, baina jendea etortzen denez, nor-



Barruko lokalean ping-pongean eta musika joaz ematen dute denbora.

mala da zikin egotea", botatzen digu besteak.

"Pintadak? ez zaizkit ardua. Badakit zainduta hobeto egongo litzatekeela, baina..." "Argi dago kalistroa pintadaz betetzea ez dagoela ondo, monumentua delako, eta norbere eritzia pintada bidez adieraztea ondo badago ere, beste nonbaiten egin beharko litzateke", dio Patxik.

Arkupeetatik barrura

Azken egunotan ohiz baino musika gehiago entzuten da kalistroetatik barrura sartuta dagoen lokaletik ateratzen. Orain arte, kitarraren baten sokekin jolasean ikus zitezkeen gazte talde batzuk. Orain, aste pare bat dela, talde batek barruko lokala hartu du, eta bertan musika talde sortube-



Frantziskotarren komenturako sarrera gazteen topaleku.

Gaztetxea, gaztetxea, gaztetxea

Mikelek 18 urte ditu eta egunero etortzen da. *"Hemen gaztetxe bat behar dugu, geure kasa egoteko lekua. Badakigu kalistroa ez dagoela batere zainduta, baina gazteren bat jarri behar litzateke lekuaz kargu egiteko, mutikoren bat fijo hau zaintzeko. Udalari? Emango duenari eskatuko nioke lokala". "Hemen egon beharrean, gaztetxea beharko genuke, hor barruan dagoena baino handiagoa eta garbiago eta hobeto jarrita, egon, hitz egin eta musika entzuteko". Patxik barruko mobida ondo ez duela ezagutzen aitortzen du, baina "gaztetxea mon-*

tatzeko intentoa da. Kasu horretan ez dakit nola eraman den kontua, eta behar bada beste modu batean egin beharko litzateke: Udalak agindutako lokala eman dezan presionatu eia epea ezarri. Eta bestela okupatu, baina barruko ekintzak behar bezala antolatu, erakunde ofizialek antolatzen ez dituztenak eta gazteek eurek antolatuek, ohizkoak eta kultur eta informazio gehiago". Bere ustez, gaztetxea montatzeko saioa bada, elementu garrantzitsua falta zaio: publizitatea, kanpoan inork ez bait daki hemen zer gertatzen den.

Gazteak eritziak emateko beldur ageri ziren

rien entseioetarako behin-behineko leku egokitu dute. Barrura sartu eta ilunpetan ping-pongean jolasean ageri dira batzuk: *"barruan eta kanpoan egoten gara, hemen musika entzun eta jolas egiten dugu".* Kontzertuak antolatu, jolas egin eta antzekoak egingo lituzke beste gazte batek. *"Aktibitateak? bat ere ez",* besteak.

Rufino, gazteen laguna

Inor izatekotan, Fray Rufino da Kalistroetako berri dakiena. Errekadutara doala, norbait aiea zabaltean, gazteak ikusten ditu arkupeetan, eta baita eurekin berriketan egon ere. *"Ez zait gustatzen kalistroak nola dauden, baina gazteek behar dute tokiren bat jolas egiteko edo egoteko. Orain ere hor ari dira musika jotzen, eta nik esaten diet isilago jotzeko, baina... Laguntasuna behar dute, lokaltxoren bat edo zeozer behar dute gazteek. Tabernara joateko dirurik ez dute, beste lekurik ez badute, hortxe konpontzen dira. Gauzak puskatu egin dituzte, eta hori gaizki ikusten dut. Hor oso jende ona dago, baina hiru edo lau sartzen dira piska bat okertzekoak eta okertu egiten dituzte. Hor zaintzeko norbait egotea komeni da, buru egingo duen ganorazko gazte bat".*

Egunero-egunero, euren arazoez galdetzen die gazteei, *"asko egoten naiz, eta konfiantza handia daukate nirekin, nik ere bai eurekin. Baina laguntasuna behar dute, makilakin ezer ez dugu egiten eta".*

**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia

Francisco Arrizabalagagak uztailaren 6an, San Fermin bezperan, berrogeitamar urte beteko ditu apaiz egin zenetik. Duela gutxi, Donostian omenaldia eskaini zitzaion apaizgintzan 50 urte betetzen zituzten gutzietan. Francisco Arrizabalagari inoiz ez zaizkio horrelako gauzak gustatu, horregatik ez zen bertara joan. Arrasaten aspalditik abade eta organujole lanak betetzen ditu.

— Zer dela eta Arrasaten?

— Alegin jaio nintzen, 1916. urtean. Bi urte nituela ama alargundu zen, eta orduan Arrasaten abade zegoen nire osaba batek deitu zion, hona etortzeko esanez. Orduan etorri nintzen lehen aldiz, anaia eta arrebarekin. Beranduago abade ikasketak egin eta beste hainbat tokitan egon ondoren, hona etortzeko aukera ikusi nuen eta etorri egin nintzen.

— Ikasketak hemen egin zenituen?

— Ume ikasketak bai, baina hamaika urterekin seminariora egin nuen alde, Comillas-era. Ni joan aurretik, anaia ere hara joan zen eta ondoren ni joan nintzaion. Apaiz ikasketetako lehen lau urteak egiten ziren Comillasen eta haiek bete ondoren, Gasteizera etorri nintzen beste zortzi urtetan ikasketak bukatzera, tartetxo batean gerraren ondorioz seminarioa itxita ere egon zen eta.

— Gerran ere egon zinen ala?

— Ez, baina gerraren ondorioz seminarioko urte bat galdu nuen. Burgosera eramanez ninduten, laguntzaile zerbitzua egitera, baina ikusten nuena baino gutxiago ikusten nueneko planta egin nuenez, libratu egin

Francisco Arrizabalaga

Berrogeitamar urte abade



nintzen hasieran. Gero, errebisioa eskatu zuten eta Logroñora joatera behartu ninduten, gerra han pasatu nuelarik.

— Eta gerra ostean?

— Apaiz ikasketekin batera, organujole izatekoak egin nituen. Gerra ostean, Lekeition organujole eta parrokoaren laguntzaile baten beharra zegoenez, hara joan nintzen. Lekeition lau urte pasatu nituen eta baita lan handia egin ere; kontuanizan behar da Lekeitiora iritsi nintzenean ez paperik, ez libururik, parrokiako artxiboan ezer ez zegoela. Garai hartan

ez zegoen fotokopiararik, mezak, aste santutako ofizio denak, Maiatzeko lorak, bederartziurrenak... guztiak eskuz pasatu behar izan genituen. Hala ere, Lekeition oso pozik egon nintzen.

— Hain pozik egonda, alde egin zenuen?

— 28 urte nituen eta Kubara joateko aukera eskaini zidaten, La Habanako apaizgaitegi irakastera. Gaztea nintzen eta gainera nire anaia ere Kuban zegoen, beraz alde egitea erabaki nuen. Izugarritzko ustekabea eman nion anaiari, ez bait nion abixatu hara joango nintze-

nik.

Seminarioan eskolak emateko asmoz joan banintzen ere, lehen bi urteak katedralean pasatu nituen organujole lanak betetzen. Hemenik joan ginenean, Kuban hiru urte pasatzeko asmoa geneukan, baina azkenean zortzi urte egin genituen, eta hala ere ez ziguten bueltatzen utzi nahi.

— Arrasatera orduan etorri zinen, ez?

— Bai. Kubatik bueltatu eta esan zidatenean Arrasateko organujole eta abade laguntzaile tokia libre zegoela segituan eskatu nuen, hemen hazitakoa bait nintzen. 1954. urtetik hementxe nago.

— 50 urtetan eliza asko aldatu da?

— Garaiak aldatu diren neurrian eliza ere aldatu behar izan da. Batzuk elizak garai berrietara egokitzerik ez duela jakin esango dute, baina niri baietz iruditzen zait. Gaur egun sinismendunak gutxiago izango dira, baina fedea gehiago barnertzen dutela iruditzen zait, sakonagotik sinesten dutela.

Gaur egun apaizgai direnak ere oso gutxi dira, baina jende fina, giroa zelakoa den ezagututa, oso zaila delako gazte batek kristau bizitzaren aldeko apostua egitea.

— Horrenbeste urteren ondoren gogoratzen duzu lehen sermoia?

— Egia esan, ez dut gogoratzen. Ordenatu, Lazkaon ordenatu nintzen eta bertako monjek izugarritzko bazkaria eman zuten orduan. Gose urtea zen, 1941. a. sinetsi ezinezkoa zen bazkari hura.

— Eta mezak zenbat izan diren?

— Atera kontua, egunero bat, ostiral santuan ezik, urte gutzian zehar, gutxienez 18.200 meza.

— **“Lekeition artxibo guztia berridatzi behar izan nuen eskuz”**

Txirrindulariak emaitza onak lortzen

Ruben Ramos, Iñigo Roldan bezala, Euskadiko Selektziora

Aurreko astean bezala, Arrasateko talde desberdinetako txirrindulariek emaitza oso onak lortu zituzten, garaipenik lortu ez bazuten ere.

Larunbatean, alebin eta haur mailako txirrindulariek Mallabian antolatutako lasterketetan egon ziren. Alebin mailako lasterketan Oiherr Garrok laugarren postua lortu zuen, infantiletakoan Iraultza Alberdik boskarrena lortzen zuen moduan. Datorren larunbatean bi maila hauetako txirrindulariek Zumarragako proban hartuko dute parte.

Alebin eta haurrei baino hobeto joan zitzaizkien gauzak kadete mailako txirrindulariei, lasterketa irabazteko zorian izan ziren eta. Kadete mailakoan zita Legaz-



Jubenil mailakoak emaitza onak lortzen ari dira

piko Telleriarte auzoan zen, eta 38 kilometro egin ondoren, Josemi Elizburuk esprintean sartu eta bigarren postua lortu zuen. Aritz Altube lasterketako hamargarrena izan zen, Zigor Urain hamaboskarrena, eta Ruben Cabero hogeitaboskarrena, ehun eta zortzi txirrindularik osa-

tutako tropelean.

Ruben Ramos selektziora

Txirrindulariei dagozkien kontuei bukaera emateko, gazte mailako lasterketa aipatu behar. Euskadiko Ligako hirugarren lasterketan hartu zuten parte Fagor tal-

deko txirrindulariek, taldeko bi txirrindulari hoberenak Iñigo Roldan eta Ruben Ramos izan zirelarik. Lasterketako 88 kilometroak bete ondoren, esprintean Iñigo Roldan bigarrena izan eta Ruben Ramos hamaboskarrena. Lasterketa honetan ihesaldi ugari egon zen, eta Fagor taldeko bi txirrindulariak gehienetan sartu ziren.

Arrasatearren partaidetza osatuz, Eneko Garai hemezgarrena izan zen, Aitor Uribe txaberria hogeigarrena eta Andoni Garcia hogeitaboskarrena.

Iñigo Roldan Euskadiko selekzioan sartuta zegoen moduan, Ruben Ramos ere deitu dute, datorren astean Euskadiko selekzioarekin batera Chiclanan izango delarik.



Saez de Biteriri saria





Centraljet Euskal Air saskibaloitako taldeak, garaipen erraza lortu zuen joan den asteburuan Barañainen jokaturako partiduan, 77-92. Partiduko lehen minutuetatik, arrasatearrek hobeak zirela erakutsi zuten eta markagailuan alde handia atera ere. Datorren asteburuan, Musakolan aurtengo denboraldiko azken partidua jokatu da, eta horregatik Aitor Saez de Biteriri saria jasoko du, denboraldian Centraljeteko jokalarik hoberena izan dela adierazten duen saria.



BEROLAN

S. LORENTZO 58, 4. ESK.
ONTTI TFNOA 78 29 63

PROIEKTUAK, INSTALAZIOAK:

 KLIMATIZAZIOAN
 ELEKTRIZITATEAN
 SUTEEN-AURKAN
 LEGEZTAPENAK



MIKEL


Eskaiola, pintura eta kortxoeko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE

PODIUMA

RUBEN RAMOS

Bi gurpiletan aurrera



Ruben Ramos, zortzi urterekin hasi zen bizikletarekin hango eta hemengo herrietako lasterketetara joaten, oso gaztea zela beraz. Adituek diotenez, hain gaztetatik ez omen da bat ere ona bizikletan ibiltzea. Aurrekoarekin ados badago ere, Rubenek ez du uste berari horrelakorik gertatuko zaionik. *"Txikitan, bizikleta ez nuen oso serioan hartu, hobby bezala. Beste kirol eta jolasekin txandakatzen nuen, eta horregatik ez dut uste erreko naizenik. Astean behin edo bi aldiz ibiltzen nintzen, ez gehiago"*.

Aurrerago zer gerta daitekeen jakiterik ez badago ere, ondorengo hitzek ederto erakusten dute egiten ari den kanpaina ederria. *"Lasterketa bat irabazi dut, beste guztietan postu oso onak egin ditudalarik. Zorteak laguntzen badit, hau da, ez banaiz erortzen eta lesiorik ez badaukat, aurtien oso denboraldi ona burutuko dudala uste dut. Datorren urtean afizionatuen mailara pasatuko naiz, eta talde on batera joatea nahiko nuke, gero ahal izanez gero, profesionaletara pasatzeko"*.

Profesional mailara eramaten duen zubia zeharkatzea zaila dela aitortzen

du Ruben Ramosek, baina ahalegindu barik ezin daitekeela jakin norbrira ona edo txarra den. Saiatzeko asmotan badabil ere, Ruben Ramosek ez dauka burua bi gurpiletan bakarrik. *"UBI ikasten ari naiz, San Viatorren. Zaindu?, zaintzen naiz baina pasatu barik. Denboraldian zehar ez naiz ateratzen larunbat gauetan, normalean lasterketak igande goizetan izaten direlako eta goiz jaiki behar izaten dugulako. Denboralditik kanpo besteak bezala ibiltzen naiz. Janaria piska bat zaintzen dut, baina normal jaten dut, berezitasun gehiegirik barik"*.

Ez da filosofia txarra, ez, Ruben Ramosena. Izan ere, bere idoloak, Marino Lejarretak, antzerako jarrera dauka bizikleta eta bizitzarekiko. *"Hoberena da, aurtien Espainiako itzuliaren irabazlea izango da"*.

Ah!, bizikleta ganean ere Marinoren antza dauka Ruben Ramosek, ondoen aldapan gora ibiltzen bait da, eta okerren sprintean.

◆ **Atxabaltarrak galtzaile derbian**
Joan den igandean, Arrasate eta Aretxabaletako emakumezkoen futbol taldeen arteko derbia jokatu zen, ohizko 90 minutuak jokatu eta gero, markagailuak 3 eta 1eko emaitza erakusten zuelarik, arrasatearren alde. Atxabaltarrek lortu zuten partiduko lehen gola, baina arrasatearrek laster erantzun zuten eta egindako aukera ugariatatik hiru aprobetxatu zituzten. Asteburu honetan, kopa lehiaketaren barruan aurreko partidua irabazi eta gero, Bilbon jokatu dute arrasatearrek.

◆ **Eskubaloian aurrera**
Arrasate Kirolak, eskubaloi taldeak, kategoriari eusteko urrats berria eman zuten Musakolako kiroldegian partidua jokatu ondoren, 22 eta 20 irabazi zionean Jarrilleros taldeari. Garaipen honi esker, arrasatearrek sailkapeneko hirugarren postuan daude eta kategoriari eusteko aukera handia daukate, kontuan hartuta gainera besteek baino partidu bat gutxiago jokatu dutela eta azkenaldian joko maila ikaragarria erakusten ari direla.

◆ **Mondrak irabazi**
Mondra taldeak, ez zuen aparteko eragozpenik izan Ondarroako Aurrera taldearen aurkako partidua irabazteko. Partiduko lehen minutuetan jokoa paretua izan zen, baina minutuak aurrera joan ahala mondragoetarrek nagusitzen joan ziren. Arrasatearrek aukera ugari egin zituzten, baina 25. minutura arte ez zen lehen gola iritsiko. Partidua erabakiko zuena, berriz, bigarren zatiko minutu berean iritsi zen. Atxabalpen bildutako ikusleak gustora atera ziren ikusitakoaz. Okerrena, lortutako bi puntuek ez dutela ezertarako balioko.

Jardunek antolatuta eta Euskadi Irratiak lagundurik:

XABIER LETE / ANTON VALVERDE

Bergaran


**Eguna: maiatzak 10 (ostirala).
Ordua: gaueko 10.30etan.
Tokia: Frontolan.**

Lesioak eta kirola

Kiolariaren gorputzean funtsezko elementuak dira giltzadura edo artikulazioak.

Giltzadurak, elkarren ondoko hezurren muturrak estaltzen dituzten artikulazio-gainaldeek osatzen dituzte. Giltzadura inguratzen duen ehun konektiboaz eratutako kapsula hau mintz batek inguratzen du, honek sinobiala deituriko likidoa jariatzen duelarik, eta tentsio handieneko puntuetan kapsula hori lotgailu edo ligamentuen bitartez dago indarturik. Era berean, giltzadurak muskulu eta zurda edo tendoiz inguratzen egoten

dira. Giltzaduraren finkotasunarentzat zenbait faktore aktibo eta pasibo da lagungarri. Aktibitate muskularrak mantentzen du finkotasun aktiboa eta finkotasun pasi-



boa, berriz, kapsula eta tendoien eginbeharra da. Giltzaduraren finkotasun pasibo egokia izatea derrigorrezkoa da behar bezala funtzionatzeko.

Giltzaduretako lesioak sarritan agertzen dira zenbait kirolotan: futbito, squash, futbol, rugby... eta oro har, elkar ukitze edo kontrajotzea dakarten kirol guztietan.

Futbitoa nahiz squasha gero eta gehiago egiten dira, asteen behin edo birritan hainbat pertsonak ekiten diolarik honelako zerbaiti. Normalean, lantegitik zuzen-zuzenean pasatzen dira jolastokira, ez dute berotze-arietarik egiten, ez dute gorputza behar bezala pres-

tatzen egitera doazen kirolerako, eta ekidin ezina gertatzen da: giltzaduretako lesioak batzuetan arinak badiara ere, beste batzuetan berriz, garrantzi handikoak izan litezke. Gero eta maizago agertzen dira. Lesio hauek, ordea, ez dira kirolarien artean bakarrik agertzen, kirol egiten ez dutenen artean ere ikusten dira. Horregatik, hurrengo asteotan zehar lesio-mota hauetaz hitz egingo dugu: zaintiratuak, lokadura edo dislokazioak, hausturak, eta, nola gertatzen diren eta nola tratatu behar diren, edo zer egin behar den ebitatzeko.

Eukeni & Arantxa

LORAMENDI

KIROLAK

ULTIMATE D.T.S.

PAC AMBITION


TECNO PRO

INTER SPORT

Shops for Winners

Batuta

Joakin Barandiaran



Joakin Barandiaranek ez du izkutatzen musikari asko zor diola, izan ere jende ugari ezagutu eta lagun asko ezagutzeko balio izan zion bere garaian. "Dirua egin genuela argi eta garbi esan beharra daukat, *Los Jaguars* eta *Gaurko* taldeekin makina bat ekitaldi egin genituelako. Diruarena garrantzitsua izan bada ere, ez da garrantzitsuena, lagunak egitea askoz ere inportanteagoa bait da. Musikak zerbait adierazteko balio behar dizu, ondo kanta dezakezu eta jendearengana ez iritsi. Gu iristen ginen, eta horregatik lortu genuen hainbesteko arrakasta".

Oso gazteak direnek seguruen ez dituzte, ez *Los Jaguars* eta ez *Gaurko* taldeak gogoratuko. Joakin Barandiaran taldean sartu zenerako, *Los Jaguars* bazebilen. "Astearte edo asteazken bat zen eta entseiura joan nintzen, kantari baten beharra zeukatelako eta aproba egitera. Larunbaterako Debako berbenan kantatzen nengoen. Herriz-herri ibiltzen ginen, gelditu ere egin gabe".

Gauza guztiak hasi eta bukatzen

diren bezala *Los Jaguars*en historia, soldaduskak medio, bukatu egin zen. Dena dela, Joakin Barandiaran gustora zebilen musika mundutxoan eta beste lagun batzuekin *Gaurko* taldea osatu zuen. "Aurreko esperientziaz baliatuz gauzak era erdi-profesionalean egiten genituen, geure ekipoa, garraioa, lokala... Lanera joan edo ez joan matematika kontua zen: zenbat irabazten dugu lantegian arratsalde batean? 100 pezeta, zenbat irabazten dugu edozein ezkontzatan jotzen badugu?, bada txanpaina, tarta eta 600 pezeta".

Adinean aurrera, beste talde asko bezala *Gaurko* taldea desagertu egin zen, inolako haserririk gabe, inertziaz bezala. "Orain ere, ahal dudan bakoitzean kitarra neurekin eramaten dut, eta biltzen garenean izugarritzko jaia izaten da guretzat".

Musikak zerbait adierazteko balio behar dizu, jendearengana iristeko

Txio txioak

Haurren Abesbatz Topaketak

Larunbatean Amaia antzokian, San Frantzisko Xabier Ikastolak antolatutako jaialdian arratsaldeko 4etatik aurrera Deba Bailarako Haurren Abesbatzak kantatuko dute. Abesbatzak, adinaren arabera lau taldetan banatu dituzte, hamabi koru bilduko direlarik. Umeen lana bukatu eta gero "Bixente Goikoetxea" Abesbatzak saioa berezia eskainiko du.

Cesareo Gabarain hil zen

Joan zen astean Batuta sailean agertzen zen Cesareo Gabarain hernaniarra, Arrasateko Ospitalean hil zen apirilaren 30ean. Cesareo Gabarain duela 54 urte Hernanin jaio zen, musika konposatzaile, kazetari, teologo eta kirol-gizona izan zen. Bere azken desioa horrela izanik, Antzuolan lurperatu zuten joan zen asteazkenean, hilaren 19an omenaldia jašo behar zuen herrian hain zuzen. Musikaria beti musikari, bere ingurukoak adierazi zutenenez, 400 kantu ugari egin zituen gizon hau kantuan hil omen zen.

Albina Madinabeitiari omenaldia

Arrasate Musikalak Albina Madinabeitiaren omenezko kontzertua eskainiko du maiatzaren 4ean. San Juan Bataiatzailearen elizan, iluntzeko 8etan.

Kontzertu-omenaldia, berez, Albina Madinabeitiari kaineren 9an egingo zaion omenaldi handiaren aurrerapena izango da. Larunbat honetako jaialdian Albinak berak ere parte hartuko du bi-bobolinjole bezala.



ERAÑA AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzezino kalea 4, behea Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

“Elebitasuna eta hizkuntz jabekuntza” kongresuaren ondoren, Irakaskuntz eredu elebidunei buruz zenbait burutapen

Apirilaren 9tik 12ra “Elebitasuna eta hizkuntz jabekuntza” izenburupean Donostian egin zen kongresuan, Kanadan egiten ari diren esperientziei buruz, Hammers, Laval unibertsitateko irakasleak eta Genesse, Montreal unibertsitateko irakasleak azalduko hainbat informazio jasotzeko aukera izan genuen.

Jarraieran agertuko diren bi artikuluetan, Kanadan, ama hizkuntza ingelesa duten umeei frantsesa erakusteko sortutako “murgiltze” ereduari buruz haiek aporteratutako zenbait informazio azalduko ditugu; gure bailarako zenbait

ikastetxek umek euskalduntzeko eredu hau aukeratu dutelako, iruditzen zaigu interresgarria informazio honen berri ematea.

Informazioa lau gairen inguruan antolatu dugu:

- Ereduen diseinua:
- Hizkuntza bakoitzak duen garrantzia, arloak, metodologia...
- Emaitzen inguruen frogatutakoa
- Baldintzak.

Ereduen diseinua

Murgiltze eredu D eredu bezala, irakaskuntza euskeraz egiten da; baina “murgiltze” ereduak “D” ere-

duarekin konparatzen badugu, zenbait berezitasun ditu:

- Murgiltze eredu D eredu ez bezala, bigarren hizkuntza bat erakusteko sortutako eredu da. Bere diseinuan, hau da, edukiak eta beren progresioak definitzerakoan, iharduera didaktikoaren antolamenduan... kontuan izaten da curriculumaren edukiakin batera hizkuntza baten transmisioa ematen dela eta honen ondorioz:

- Iharduera didaktikoetan umeei erabiliko den hizkuntza ulergarria dela ziurtatzen da.

- Curriculumak eskatzen dituen edukiakin batera eta

haien bidez hizkuntza erakusten da, hau da, komunikazioa helburua duten ekintzekin batera, komunikazioa posibilitatzen eta aberasten duten ekintzak antolatzen dira alde batetik, eta bestetik, hizkuntz programa curriculumaren arlo guztien inguruan antolatzen da eta ez gai isolatua bezala.

- Hizkuntz programa, hizkuntzaren erabileran oinarritzen da: eguneroko ekintzen inguruan, curriculumak markatzen dituen edukien ulermena eta adierazpenaren inguruan... Perspektiba honetan kritikatzeko dira bai gramatika eta baita funtzioen lanketa isolatuan oinarritutako programak ere.

Klarion Taldea

“Bizi bide alternatiboak”

HITZALDIA (Maiatzak 7, asteartea)

Hizlaria:

- **Kristina Ramos** “Bizitza trilogikoa” ingleseteik aldi bereko itzulpena.

MAHAINGURUA (Maiatzak 8, asteazkena)

Hizlariak:

- **Sagrario Lopez** (Belgikako “La maison” komunitatean bizi izana)
- **Begoña Iñarra** (Araotzeko komunitatean bizi izana)
- **Joxe Aranzabal** (Israelen Kibutzetan bizi izana)

Tokia: **Monterron**

Ordua: **7etan**



Saskibaloitako taldeko lehendakaria

Jose Mari Balzategi-
ren Opel Kadettak
bi urte besterik ez dauzka.
Autoa berri samarra izan
arren, Jose Mari aitortzen
du ez diola kasurik egiten,
"Ia ez dut sekula garbitzen,
eta mekanikari ere ez diot
begiratzen, autoaren jabea
neu naitzelako eta ez bera
nire jabea". Beharraren
beharez, autoa asko erabiltzen
omen du Jose Mari Balzategi-
k, eta ondorioz multak ere jaso
omen ditu, "gaizki aparkatze-
gatik eta horrela jarri dizkida-
te batzuk. Alkoholemia
kontroletan oraindik ez
naute gelarazi, eta esker-
rrak".

• Jose Mari Balzategi •



TXANPA

Sartu barrura,
irten motorrean

Yamaha
Artistic
Sec Jog

**Motor hau
ZUREA
izan daiteke**

Zure erosketak **TXANPA**n egiten badituzu, guk emango dizugun txartelaren numeroak uztailearen 9an egingo den **ONC**eren zozketako lehen sariaren azken bost zenbakiekin bat badatoz, **YAMAHA** motor eder honetan irtengo zara.

Daniel Lasagabaster

Aurten ere Hiru Handiak

Aurreko urteetan bezala, datorren ekainaren 29an *Hiru handiak* deitutako mendiko martxaren V. edizioa egingo da, Gasteizko Manuel Iradier Elkarteak antolatuta. Aurtengoan alderantziz egingo da ibilaldia, Aizkorri-Anboto-Gorbeia ibilbideari jarraituz hain zuzen ere. Irteera Zalduendon egingo da, eta Gopegira iritsiaz. Gainerakoan, ibilaldia-aren arau orokorrak (kontrolak, izenematea...) aurrekoetan bezala egingo dira.

Parte hartu ahal izateko honako epeok jarri dira:

Maiatzaren 15etik ekainaren 15era: izenematea (partaide kopurua 500 lagu-


nekoa izango da, gehienez, aurten).

Ekainaren 28an: arratsaldeko 8etatik aurrera partaideei harrera egingo zaie Manuel Iradierren lokaletan

eta kontrolerako txartelak emango. Gaueko 11etan Zalduendora abiatuko dira mendizale guztiak autobusez, gero handik irteteko.

29an, ostiraletik larunba-

terako gaueko 12etan lehen ibiltariak irtengo du eta gaueko 10etan itxiko da kontrola Gopegin. Handik berriaz ere Gasteiza abiatuko dira iritsitako guztiak autobusez.



EUSKAL FAMILIATAN

IKASI!!!



Euskara ikasten ari zaretenontzako egonaldiak euskal familiatan.

Informazioa eskuratu nahi baduzu, jo Udaletxeko Euskara Zerbitzura. Tfnoa: 79 09 00

Indarberritu den lehoi arrasatearra



■ Lehoiak normalean urte asko hartzen baditu ere, Arrasateko lehoi honek 61 bete ditu eta indarberriturik beste hainbeste, behintzat, hartzea nahilitzuzke.

• 1929.ean **RONEO**k, hizkuntza ingelesa medio, bulegoetarako altzariak egiteari ekin zion. Bizkor eta indartsu bizi izan da orain arte. Eta etorkizunean berdintsu jarraitzeko indarberritze saioa heldu zaio.

• 1990. urtea garrantzi handikoa da **RONEO**rentzat, planta guztiz berria zabaldu du Arrasaten, 2.900 m² koa, azkenengo teknologia berriko makinak, pintura tresna eta CADa instalatu dituelarik.

• Diseinuan ere aldaketa nabari egiten dihardu, produktu berrietan sartzen, aukietan batez ere, pertsonala hezitzen ari da, eta komertzializazio sarea finkatzen. Sasoi batean teknologia inportatu bazuen ere orain produktuak esportatzen ditu.

RONEO indarberritu da, Arrasate ere bai.

RONEO UCEM

Bulegoetarako Orotariko Hornidura Ingenieritza



Aste gazte

— Hogei urte bete baino lehen esan gura dut, bizitzak aurrera egiten zuela uste nuen, are eta aberatsagoa eta biziagoa izango zela. Batek gehiago ikasiko zuela, jakintsuagoa, azkarragoa, izatera helduko zela...

— Eta ez da hala, ezta? Zigarro bat erretzea modukoa da. Lehen kaladak zoragarriak dira, ez duzu uste agortu egingo denik. Ahanzten hasten zara. Bapatean, punta ere erre egin dela konturatzen zara. Eta orduantxe duen zapore garratzaz jabetzen zara.

Paul Bowles "El cielo protector"

Lan ihardunaldiak

• 18 urtetik gorakoentzat eskaintza zabala dagoen bitartean, 18tik beherakoek ez dute aukera handirik. Badakizue, beraz, azkarrago ibili beharko zaretela.

Kanpamenduak

• Pagoetan eta Belaguan, Gipuzkoako Diputazioak antolatuak. Iraupena: aste-bete, uztailen eta abuztuan. Adina: 15-17 eta 18-21. Prezioak: 7.000 pta. Pagoeta eta 10.000 Belagua. Izenak emateko epea maiatzaren 15ean zabalzen da.

Bekak

• "Oriol-Urquijo" ikasketak sakontzeko bekak. Eskatzaileak: honako arlo hauetan lizentziatuak: Zuzenbidea, Gizarte-Zientziak, Politika, Ekonomia, Historia, Geografia, Filosofia, Psikologia, Pedagogia, Filologia, Kazetaritza, Medikuntza eta Teologia. Zenbat: 1.000.000 pta. Epea: maiatzak 12.

Lehiaketak

• Anagrama-lehiaketak: Gernikako Gazteleku, Musika-Eskola eta Turismo-Bu-

legorako anagramak aukeratzeko. Teknika eta kolore eta neurri libreak. Sariak: modalitate bakoitzeko 50.000 pezetako sari bat. Epea: maiatzak 10.

• "Pablo Sarasate" nazioarteko Bibolin-Lehiaketa. 33 urtetik beherako bibolin-joleei zuzendua. Sariak: 1.500.000, 1.000.000 eta 750.000 pta. eta ikasketak-laguntzak. Epea: maiatzak 14.

• Ingurugiroari buruzko I. Argazki-Lehiaketa. Kolorez edo zuri-beltzez, teknika librea.

• Artista Berrien XXXIII. Lehiaketa. Sailak: Pintura eta Eskultura. Gipuzkoan jaio diren edo bost urteetan bizi izan direla 18 eta 30 urte bitarteko artista berriei zuzendua. Gai eta teknika libreak. Sariak: sail bakoitzeko 750.000 pezetako sari bi. Epea: maiatzaren 15etik 31ra bitartean.

• "Letras del Sur" Konkataketa Laburren IV. Lehiaketa. 30 urtetik beherakoei

zuzendua. Gazteleraz. Gai librea. Lanek 3 eta 10 orrialde bitartekoak izan behar dute. Sari bakarra: 100.000 pta. eta lanaren argitarapena. Lanak aurkezteko epea: maiatzak 31.

Ikastaroak

• Artelanen Kontserbazio eta Berriztapenerako sarrea, Donostian. Nori zuzendua: bere lan esparruan kultur eta arte ondarearekin harremanik dutenentzat. Maiatzaren 21etik ekainaren 10era arte, guztira 30 ordu, arratsalde. Matrikula: 6.500 pta.

• Kirola eta aisialdia. Maiatzak 11 eta 12. Gasteizen, "Acción 21" Animazio-Eskolak antolatuta. 12 ordu. Matrikula: 3.000 pta. Izena emateko epea: maiatzak 6.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua, 77 00 65



Parques y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN SORKUNTZA

LORAZAINTZAKO MANTENIMENDUA ORO HAR

LANDARE-BIRSORKUNTZA HIDROEREINTZAZ



Casa-Torre kalea. Tfnoa: 94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)

ETXEBIZITZAK

- Arrasaten neska edo mutila behar da etxebizitza konpartitzeko. Deitu astelehenetik ostiralera, gaueko 8.30etatik aurrera. Tfnoa: 77 08 90.
- Aretxabaletan edo Arrasaten etxebizitza alokatuko nuke. Tfnoa: 79 01 00. Jose Luis.
- Bilbon etxebizitzaren batean logela librerik ezagutzen baduzu, deitu 76 16 68 tfnora.
- Bi oheko logela alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Pisua salgai Iturriotz kalean. 89m2, hiru logela, egongela, sukaldia, komuna eta trastelekua, dena kanporuntz. Dei egin 8etatik 10etara 79 76 56 tfnora.
- Etxebizitza salgai Obenerrekan. Guztiz berritua. Egongela, bainugela, sukaldia eta logelabat jantziak. Beste bi logela. Trastelekua. 78m2. Bakarkako berogailua Ganbara. Deitu inongorik gabe 79 98 83 tfnora. Gaueko 8etatik 10k bitartean.
- Uribe auzoan etxebizitza salgai. 107 m2, garajea, trastero eta ganbara. Dei egin gauean 79 34 23 tfnora. edo denda orduetan 79 98 94 tfnora.
- Erguinen etxebizitza salgai. (Garajea aukeran). 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela, 2 terraza. Eguzkitsua. Bista ederrak. Gas naturala. Tfnoa: 79 93 42.

- Neskak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 87 88.
- Pertsona kualifikatua behar da nutrizio programak saltzeko, 23 urteik gorakoa. Dei egin arratsaldeko 3.30etatik 7.00etara 77 14 81 tfnora. edo joan Nao de Santiago kaleko 4. era.
- Jaun-andereok:
-Egunean hiru ordu libre eta telefonoa badituzu.
-Beste edozein iharduerarekin bateragarria.
-Irabaziak: 100.000tik 300.000 pta. hilean, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzan.
-Aurrez ordua hartuta bakarrik. Deitu 77 14 81 telefonoan 4etatik 7etara.
- Euskarazko klase partikularrak emateko irakaslea behar da. Tfnoa: 79 49 18.
- Estetika ikasketak bukatu ditut eta lanerako prest nago. Tfnoa: 79 19 20
- Gizon gaztea lan egiteko prest. Egun erdi, goizez. Dei 79 75 43 tfnora. Jesus.
- Cobol-eko klase partikularrak hartuko nituzke. Dei egin 15.30etatik 16.00etara. Tfnoa: 77 08 15. Mikel.

- Egoera onean dagoen R-6 GTL bat erosiko nuke. Lanorduetan 77 09 40.
- R-21, 21 Turbo autoa salgai. 38.000km, garajea lo eginda. Tfnoak: 79 34 23, 79 98 94
- Karro-denda salgai. Alpen-Kreuzer GT modelokoa (2 logela, 6 pertsonarentzat) gainerako guztiakin. Tfnoa: 79 66 31.
- Amstrad Cpc 6128 kolorekoa salgai. Inprimagailua, arkatx optikoa, ramdisk, jokoak, testu prozesatzailea, musika, marrazkiak. Aldizkariak eta liburuak ordenadorearekin ematen ditut. 60.000 pta. Dei egin bazkal orduetan 79 62 94 tfnora.
- Stratocaster-en kopia saltzen da prezio onean. Interesatuak dei egin 79 36 83 tfnora. 13.30etatik 15.00ak bitartean edo 22.00etatik aurrera, astean zehar. Patxi.
- Teoría elemental de grupos" E. Bujalance-na eta "Anillos y cuerpos comitativos" Jose M. Ganboarena salgai, (zientzia zehatzak), berri-berriak. Dei 79 92 29 tfnora. 20.30etatik aurrera.
- Karrerako bizikleta salgai. Arina, polita, gutxi erabilia. Pezio interesgarria. Tfnoa: 76 32 69.

SALEROSKETAK

- Bost lagunentzako kanping-denda salgai. Aluminiozko hobiak. Tfnoa: 78 04 89. Arriaran.
- Kutxa izoztalaria salgai. Aproposa etxean edukitzeko edo edozein produktu izoztua gordetzeko. Aukera ezin hobea (sei hilabetetan erabilia bakarrik). Interesatuak dei egin astearte eta ostirala bitartean 94 - 682 04 83 tfnora. goizez bakarrik.
- Peugeot 103 modeloko motorra salgai. Ondo zaindua, dokumentatua eta prezio onean. Interesatuak dei egin: 79 80 55 tfnora. Arratsaldez 19.00etatik aurrera.
- Bost lagunentzako Hergo markako karabana abanize eta guzti salgai. Tfnoa 78 17 88.

DENETARIK

- La Merced-eko ikasle ohio afaria dugu maiatzaren 11n. Eman izena Hire liburudendan.
- Ohe bilko sofa, ltxurazkoa, koltxoi eta guzti, eraman alde emango nuke. Dei 79 05 91 tfnora. Nahi duenak eraman.
- Eguerdiko sei t'erdialak dira. Arrozesnea edarra edarra, edarra dago. Urbian euria ari du, baina, Matxinbentan aterri. Gorantziak. Aitziber zer moduz Goñin? Jo ta fuego "Txarabeltz" sektorea.
- Irlandatik zuzenean: Kaixo! Hemen gaude Guinnessaren menpean askatu ezinak, ea zuek kalimotxo kupel bat bidaltzen diguzuen. Laster bueltan izango gara txikiteo gudaria egiteko. OK. (Aitziber eta Miren). Gora Euskadi!

LANA

- Neska euskalduna behar da Gasteizen etxeko lanak egin eta hiru urteko umea zaintzeko. Deitu 20.00etatik aurrera 945 - 23 01 05 tfnora.
- Neska prest etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 49 05.
- Emakumea etxeko lanak eta umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 65 83.



ARRASATEN HILDAKOAK



Fernandez Ruiz, Amelia
apirilaren 20an. 85 urte
Mendizabal Cormenzana, Alejandro
apirilaren 22an. 86 urte
Calleja Perez, Luis
apirilaren 23an. 77 urte
Nuñez de Rio, Isabal
apirilaren 24an. 69 urte
Fernandez Ruiz, Amelia
Diego Herrero Petra
apirilaren 24an. 70 urte
Garcia Polvorosa, Cesarea
apirilaren 28an. 88 urte

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Ana Lopez Ikatz argazki dendakoa



- Mate ala brilloa? Brilloa.
- Dantza egin ala begira egon? Dantza egin.
- Telebista ala zinema? Zinema gustokoagoa dut.
- Kafea ala tea? Kafea, egunero hartzen dut.
- Zuribeltzean ala koloretan? Zuribeltza.
- Hitz egin ala entzun? Entzun, entzun.
- Mendia ala hondartza? Mendia.
- Bixigua ala angulak? Ez zaizkit gustatzen, ez batzuk eta ez besteak.
- Autofocus-a ala eskuz enfokatzekoa? Eskuzkoa, posibilitate gehiago eskaintzen ditu.
- Txakurrak ala katuak? Biak gustatzen zaizkit.
- Argazki kamara ala bideo kamara? Argazki kamara.
- Hotela ala kanping-a? Kanping-a.
- Argazkietan ateratzeko, paisaiak ala pertsonak? Berdin dit, politik izanez gero.
- Okela ala barazkiak? Barazkiak, barazkijale bihurtzeko ahaleginak egiten ari naiz.
- Afalostea ala bazkalostea? Afalostean hobeto egoten da.
- Tutea ala musa? Ondo jokatzeko ez badakit ere, musa gustokoagoa.
- Egunkaria ala aldizkaria? Bat ere ez.
- Kontuak, eskuz ala kalkuladoraz? Kalkuladoraz hobeto.
- Ogi normala ala integrala? Etxean bazkaltzen dudana bakoitzean, integrala.
- Sanjuanak ala santamasak? Biak gustatzen zaizkit.
- Botikak ala belarrak? Belarrak.
- Horoskopoa ala Tarot-a? Tarot-a, horrelakoetan sinesten dut.
- Mondragoe ala Arrasate? Berdin dit.

Igarkizunak

Animaliak

1. Uretan nabil baina ez naiz arraina, gauetan kantari nagokio ilargiari.

2. Beti kar kar kar ikasle alferra, beti kir kir kir gure _____!

3. Baditu bere armak goiko biztanleak, euliak harrapatzeko du sare fina ehuleak.

4. Gudari beldurgarriak beti prest du gezia, eta etsaiari ziztatzean berak galtzen bizia

5. Txikia da hegazkina ia ikustezina hartzeko gasolina bilatzen digu zaina

6. Zizta egiten badizuet oso da mingarria, baina egiten dut ere aho askoren gozagarria

7. Tinta badut baina ez idazteko, hanka asko ere bai baina ez ibiltzeko, harroa naiz erdia eta erraza asmatzeko.

1 = Igeia, 2 = Kilikirra, 3 = Armiarma, 4 = Errea, 5 = Eltxoa, 6 = Errea, 7 = Olagarroa.


comercial
san juan

Garibai 12,
Tfnoa: 79 13 05

hikein
ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4,
Tfnoa: 79 13 84





Uniformeak estrenatu zituztenekoa. San Juan eguna, 1948

Artean Justo Munarriz zen Mondragoeko udal bandako zuzendaria. Udaletxeko langilea zen, baina musika-

bandari eskaintzen zion denborarik luzeena. 1939an, gerra amaitu berri zela, solfeo klaseak emateari ekin zion. Bandaren entseiuak, bestalde, *Akademixian* egiten ziren, udaletxearen atzekaldean. Orduko musikoei 90 pta. inguru kobratzen zuten hiru hilabeteko.

1948an musikoentzako traje berriak egitea erabaki zuen Udalak. Trajeak Aranburuk eta Markiegik egin zituzten, neurrira. Kapelak, berriz, Gasteizen. San Juan egunean jantzi zituzten lehen aldiz. Argazkia herriko plazara ematen duen parrokiako horma ondoan atera zen, gaur musika-kioskoa dagoen leku berean.


Zutik atzeko iladan, ezkerretik eskuinera, Joseba Arregi, Luis Zubillaga, Domingo Agirreurreta, Julio Gorroñogoitia, Rafael Ortubai, Patxi Oruna, Antonio Aranbarri, Pako Aranbarri, Jose

Maria Guridi, Marcelino Sanz eta Joseba Agiriano.

Erdiko iladan ezkerretik, Manolo Sanz, Faustino Balanzategi, Miguel Sanpedro, Adolfo Gomez zuzendariordea, Ingacio Olazabal, Rufo Aranbarri, Lorenzo Oruna, Luis Martinez, Jesus Azkarate, Jose Luis Mendieta eta Jabier Mendieta.

Jarrita ezkerretik, Jose Luis Madinabeitia, Jose Exposito, Rafael Escudero, Carlos Andres, Justo Munarriz zuzendaria, Eusebio Gomez, Alberto Aranburuzabala, Mariano Azkarate eta Fermin Aranbarri.

PUB HAIZEA







ENARA
OSAGIRRIAK

Maalako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32



Musakolako ikastetxea

Musakolako 1go eta 2. mailako neska-mutilak




ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15



77 08 15

Batzuetan gorrotoarekin

Iraindutakoaren samina
nagusiaren grina,
samindutakoaren negarra
grinaduraren garra.
Zatitutako zatiak
noragabeko norabidean.
Haizearen blastada.
Blast!
... nire negarra.

Letizia

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa:79 16 04



J. M. Heriz

**Konpromezurik gabeko
aurrekontuak**

Otalora Lizentziatua. Arrasate

6 ASTELEHENA


- 18.30 **Teletestua**. Era guztietako iragarki eta abisuak.
- 19.30 **Bapirulauke**, umeen saioa, aste honetan Musakolako herri eskolan grabatua.
- 20.00 **Berriak**, asteburuan Arrasaten gertatutako guztiaren berri, Koldo Rodriguezen eskutik.
- 20.15 **Mondrasport**, ATBren kirol-saioa, Beñardo Kortabarriak zuzenduta.
- 20.30 **Saltsa Maltzan**, Jaione Olabek prestatuko du.
- 20.45 **Erreportaia**.
- 20.50 **Berriak** (errepikaldia)

7 ASTEARTEA

- 11.00 **Teletestua**.
- 12.00 **Bapirulauke** (bezperakoa)
- 12.30 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.50 **Mondrasport** (bezperakoa)
- 13.05 **Saltsa-Maltzan** (bezperakoa)
- 13.15 **Bapirulauke** (errepikaldia)
- 13.45 **Erreportaia** (bezperakoa)
- 14.00 **Berriak**

8 ASTEAZKENA

- 19.00 **Teletestua**, era guztietako iragarki eta abisuak
- 20.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztutako albisteak.
- 20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu**, Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzentzen duen mahaingurua. Gaia: Autodeterminazioa.



21.10 **Berriak** (errepikaldia)

9 OSTEGUNA

- 11.00 **Teletestua**
- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)
- Berriak** (errepikaldia)

10 OSTIRALA

- 19.00 **Teletestua**
- 20.00 **Berriak**, ATBren informatiboa, Begoña Garaik aurkeztua.
- 20.20 **Erretratoa**, J. R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa. Gonbidatua: Antton Markaide. Donostiako Aiete auzoan dagoen abade mondragoetarra.



20.50 **Musikantoi**, Patxi, Pepe, Asier eta Pepek egiten duten saioa. **Berriak** (errepikaldia)

11 LARUNBATA

- 11.00 **Teletestua**
- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.20 **Erretratoa** (bezperakoa)
- 12.50 **Musikantoi** (bezperakoa)
- 13.30 **Berriak** (errepikaldia)



ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDAK

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

SUKALDIAK

Sukalde eta bainugelako altzaritan
espezializatutako denda

eya

Zure etxebizitzarako apainketa-
-proiektuak egiten ditugu

Ignazio Zuloaga 4, Tfnoa: 79 05 07



Zazpi kazetari aurkeztu ziren asteartean ATBK behar duen kazetari-plaza betetzeko deitu zen azterketara. Arrasate, Aretxabaleta, Oñati eta Eibartik etorriak, egun osoan zehar ari izan ziren lanean. Goizean froga teorikoak eta kamara aurrekoak eta arratsaldean albiste bat egiten. Gaia: Uherkape inguruko arazoak. Argazkian, kazetari-gaietako bat eta kamara informazioa biltzen Uherkapeko langileen artean.


Telebegi

Lehengo astean izan ziren ATBrako langile berriak hartzeko frogak eta honez gero badakigu zeintzuk izango diren etorriko diren berriak. Orain arte bezala iraungo du plantilak, hau da, lau langilerekin, nahiz eta horietako bat ez den teknikaria izango, kazetaria baizik. Berritasunak, beraz, Arrasate Telebistan.

Baina berri dena, zerbait zaharragoren ordeztu ohi da. Eta "zahar" gelditu den hori ATBren hasieratik buru-belarri eta jo ta ke ibili diren hiru mutilak dira, kamara atzeko neure "konplize" izan direnak. Ez dut uste irakurle edo teleikusle zaretenerako askok inoiz ikusiko zenutenik futbol partidurik edo txirindulari entrenamendurik Telebista plato estu eta txiki batean eginak. Nik bai. Protagonistak? Doazenak.

Eta bestaldetik, eguneroko lan gogorra dotorezia eta prestutasunez betetzen dutenetakoak direla ere ikusteko parada izan dut. Faltan sentituko ditut, dudarik ez izan.

KOLDO RODRIGUEZ



Pozik dago **Patxi Montero** eta ez zaio arrazoirik falta. Arrasate Pressen 100. zenbakia zela eta, azken aldi honetan egin den jaialdirik orijinaletakoa antolatu zuen. Jarraian Galeserako bidea hartzeko Goikobalukoekin batera, argazki makina eta telebista kamara aldean zeramatzala. Bueltan, erreportaia politak egin zituen bai aldizkarian eta baita ATBn ere. Lan bikaina, Patxi. Zorionak.

Telebelarri

◆ Nire garaian Magisterio ikasketak hamahiru urterekin hasten ziren eta bost urtez iraun".

Maria Urbana Juldainek
Erretratoa saioan.

◆ Gurasoek exijitu egiten dute ikasleak normalak balira bezala, baina askotan ez dira izaten".

Maria Urbana Juldainek
Erretratoa saioan.

◆ Udaletxean hogeitaz urtez egin nuen lan. Han ezagutu nituen Bidaburu, Basterretxea, Altuna, Azkoaga eta Ardantz alkateak".

Maria Urbana Juldainek
Erretratoa saioan.



ARIES
 Martxoaren 21etik
 Apirilaren 20ra

Asmoak guzatzera gubxitan iristen bazara ere, ez dago dudarik planteamendurik egokienak zeureak izaten direla. Jarrai ezazu horrela norbaitek ondo eskertuko dizu eta.



LEO
 Uztailaren 23tik
 Abuztuaren 23ra

Aspaldiko lagun batekin topo egitea edota norbait zutaz oroitzea suerta liteke, Leo. Ez obitatu pertsona hori, orduetik honako bizimoduari errepasotxo bat ematea primeran etorriko bait zaizu.



SAGITARIUS
 Azaroaren 23tik
 Abenduaren 21era

Baliteke ezulertu serioen bat suertatzea laguna eta bion artean. Haserreak bereganatu egingo zaitu eta ez entzuteko ezta argitzeko asmorik ere ez duzu azalduko. Jarrera ezkorrek ez dute ondorio onik ematen.



TAURUS
 Apirilaren 21etik
 Maiatzaren 20ra

Normalean baino biziago zaudela nabarituko duzu Taurus. Irtsi da bai, eguzkia zure esparrura eta motelduta zeneuzkan energia horiek egunak aurrera joan ahala, sendotuz doazela nabarituko duzu.




VIRGO
 Abuztuaren 24etik
 Irailaren 23ra

Arazoak egoki hartuko dituzu, egoera aztertu eta konponbideak erraz bilatzeko gai izango zara. Patxoroso zabilzala ohartuko eta beharbada zerbaitek kezkatuko zara. Ezi garrantzirik eman, ona da eta, neurri batean. Gogoko izango zaituzte.



CAPRICORN
 Abenduaren 22tik
 Urtarrilaren 20ra

Sentiberatasunez blai eginda zabilzta Capricorn. Maitasunaren gurpil zoro horretatik lehenbailehen alde egitea komeni zaizu, erotuko zara bestela. Ariketa fisikoa egitea primeran etorriko litzaizuke, baita bakaraldi luzeegirik ez izatea ere.



GEMINI
 Maiatzaren 21etik
 Ekainaren 20ra

Kontulari trebea zara eta zure berbak maitasunezkoak izango dira datozen egunetan. Azkenaldian galduta zeneukan xarma berreskuratu ahal izango duzu Venusen egoera dela medio, baita zugandik alde egin zuen zure biziko amodioa ere.



LIBRA
 Irailaren 24etik
 Urriaren 23ra

Nahastuta zabilzta eginbehar guztiak arazotzat hartzen dituzulako. Marka itzazu lehenetsunak eta errazago burutu ahal izango dituzu. Egun argiz piztuta ibiltzeko atsedena baino gauza hobirik ez dago.



AQUARIUS
 Urtarrilaren 21etik
 Otsailaren 19ra

Espereintzia gogorak ari zara bizi izaten Saturno zure esparruan dagoenetik. Burua jaso ezinda zabilzala uste duzu, baina ez da horrela, Saturno planeta gogorra da, baina irakasle ona ere bai.




CANCER
 Ekainaren 22tik
 Uztailaren 22ra

Sua darizu alde guztietatik eta suaz jolasten duena erre egiten da askotan. Behar-beharrezkoa duzu baretzeko moduren bat aurkitzea, bestela mundu guztiarekin haserre ibil zitezke. Saia zaitetz gertaeren alde ona bilatzen.



SCORPIO
 Urriaren 24etik
 Azaroaren 22ra

Kanpolarosa egongo zara skorpio; barrua bero-bero izango duzu besteekiko izango duzun desadostasuna dela medio. Baliteke ez dago-kionarekin lehertzea eta hobe izango zenuke zure eritziak dagokien tokian azalduko bazenitu.



PISCIS
 Otsailaren 20tik
 Martxoaren 20ra

Beren arazoak ulertzen dituzula emango diezu aditzera denei eta ez zaizu faltako ez, bere penak kontatzera baino gerturatuko zaituzkin aldamean. Aprobetxa ezazu egoera zeureak ere kanporatzeko.

BIDEO-EMANALDIA

Txip aparta

Tokia: Monterron Kultur Etxea


Eguna: maiatzak 4


Ordua: arratsaldeko 4etan

Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterronen


Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea






Etorkizunaren erronka

- Gertu dagoen erakundea dugu
- **kutxa**, garai berriei aurre egiteko.
- Teknika- eta giza baliabiderik
- eraginkorrenekin, gailentzeko.
- Beharizan berriei egokituriko maila
- bikaineko zerbitzuez, eraberritzeko.
- Alor guztietan aurrera egiteko.
- Etorkizun gero eta lehiakorrago
- baterantz.



kutxa



gipuzkoa
donostia kutxa
caja gipuzkoa
san sebastián

IKER

**BAINUGELA
LILURAGARRIAK**



BAINUGELA-ERAKUSKETA:
Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43 ARRASATE